

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

3243

AGINDUA, 2013ko ekainaren 4koa, Hezkuntza Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, goi-mailako kirolariak, teknikariak eta epaileak deklaratzeko dena.

Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuak 4.2 artikuluan xedatzen duenez, Eusko Jaurlaritzan kirol-arloko eskumena duen sailburuak, Goi Mailako Kirolaren Ebaluazio Batzordearen proposamenez, goi-mailako kirolariaren izaera emango die euren kirol-modalitate eta -diziplinan munduko edo Europako onenen artean daudenei, betiere dekretuan bertan eta haren I. eranskinean ezarritako hautaketa-irizpideekin bat etorritz, eta Dekretuaren hurrengo artikuluetan ezartzen diren baldintzak betetzen badituzte.

Dekretuaren 6.2 eta 7.2 artikuluen arabera, bestalde, Eusko Jaurlaritzan kirol-arloko eskumena duen sailburuak, Goi Mailako Kirolaren Ebaluazio Batzordearen proposamenez, goi-mailako teknikariaren izaera emango dio dekretuan bertan ezarritakoaren arabera goi-mailako kirolari deklaratu den pertsona baten edo gehiagoren arduradun tekniko nagusiaren eginkizuna betetzen duenari eta goi mailako epaileen izaera honako hauei emando die: nazioarteko kirol-lehiaketetan maila horretan aritu, eta kirol-modalitate bakoitzaren nazioarteko federazioaren organoek egindako zerrendetan nazioarteko epaile-aitorpena jaso dutenei.

Goi-mailako kirolari, teknikari eta epaileen deklarazioak lehen aipaturiko dekretuan ezartzen diren ondorioak izango ditu, eta haren indarraldia, oro har, lau urtekoa izango da, dekretuan finkatzen den eran.

Aurkeztu diren eskabide guztiak banan-banan aztertu eta baloratu ondoren, Balorazio Batzordeak 2013ko maiatzaren 28an eta ekainaren 3an egindako bilkuretan, bidezko proposamena egin zuen.

Ondorioz, hauxe

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Goi Mailako Kirolaren Ebaluazio Batzordearen proposamena ikusita, I. eranskinen aipatzen direnak deklaratzeko goi-mailako kirolari, teknikari eta epaile, Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuan ezarritako ondorioekin.

Bigarrena.– Deklarazioa indarrean sartuko da agindu hau jakinarazten denean.

Hirugarrena.– Administrazio-bidea agortzen duen Agindu honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta kulturako sailburuari, hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 116. eta 117. artikuluek xedatutakoaren arabera, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzitarako Salan, bi hileko epearen barruan, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzitarako Eskumenari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak xedatutakoaren arabera.

Laugarrena.– Argitara bedi Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, jende guztiak honen berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko ekainaren 4a.

Hezkuntza Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

I. ERANSKINA

GOI MAILAKO KIROLARI DEKLARATUTAKOAK

Abizenak eta izena	Espediente-zk.	Modalitatea
Bicet Juan, Nora Aida	254/13/D	Atletismoa
Eguibar Bretón, Lucas	243/13/D	Snowboarda
Eguibar Bretón, Sara	244/13/D	Snowboarda
Feijoo Ugalde, Pablo	265/13/D	Errugbia
Oyarbide Jimenez, Lourdes	245/13/D	Ciclismo
Plá Vegue, Barbara	250/13/D	Errugbia
Rodriguez Bergareche, Isabel	249/13/D	Errugbia
Rodriguez Sanchez, Zuriñe	257/13/D	Triatloia
Santacana Maiztegui, Jon	253/13/D	Eskia
Vizuite Fernandez, Jacoba	259/13/D	Karatea

GOI MAILAKO TEKNIKARI DEKLARATUTAKOAK

Abizenak eta izena	Espediente-zk.	Modalitatea
Garcia Feijoo, Jose Antonio	41/13/T	Atletismoa
Vizuite Fernandez, Angel	40/13/T	Karatea

GOI MAILAKO EPAILE DEKLARATUTAKOAK

Abizenak eta izena	Espediente-zk.	Modalitatea
Díaz Pérez del Palomar, Roberto	10/13/J	Futbola
Echezortu Sanz, Miguel	6/13/J	Txirrindularitza
Irisarri Alli, Luis Ignacio	5/13/J	Txirrindularitza
Martinez Barredo, Ivan	7/13/J	Tenisa
Salaberria Balparda, Joaquin	8/13/J	Tiro Olinpikoa
Villate Martinez, Aitor	9/13/J	Futbola